

[b]

BARREN

ELGOIBARKO ASTEKARIA

619. zkia.

XV. urtea

2007ko ekainaren 22a



Markel Bergara, Realeko jokalaria

Berriro ere bigarren mailan

elgoibar

www.residencialgeminis.com

48 etxebitza, 2 eta 3 gelakoak
117 garaje eta 76 trasteleku



259.000 €-tik
garaje eta trasteleku barne
(43.093.974 pfas.)



Espacios de Bienestar

Angibideak: INFOLUR

Antonio Anillaga, 1 behe. 20870 Elgoibar. info@infolunet - www.infolunet

K.E.Y. hizkuntza akademia

Trenbide kalea, 19 behea - Tel: 943 74 30 44

Uztailaren 2tik 27ra ingelesko ikastaroak goizez.

- Eskolak orokorrean
- Laguntza eskolak: - Lehen hezkuntza
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza
- Batxilergoa.

Izen ematea ekainaren 28ra arte.



CAMBRIDGE Unibertsitateko
Azterketetarako Batzordeko kidea ES438



Orain,
lokal berrian
aurkituko
gaituzu
zerbitzu
hobea
eskaintzeko.



AINHOA MENDIBIL

Amaia, ez etorri. Bueno bai, etorri. Baina kontuz. Hau ez dago ondo.

Euskal Herri Tropikala deitu diot nik azken egunetan. Eguraldiari buruz dihardut. Goizez lainotuta edo esnatzen du, bai behintzat ni esnatzen naizenean. Gero argitzen joaten da. Poliki, baina argitzen. Eta eguerdi alderako argituta. Poz edarra eguzkiaren izpi gaiztoenak nahi dituenarentzat. Ikasi behar dugunontzat putada edarra, eguraldi ona eta liburutegiko itzaletan, kaka. Baina itxaron, oraindik bereak egiteko ditu eta honek. Bostak, seirak akaso izango dira batzuetan, iluntzen hasi orduko. Farolak ere piztu ziren Elgoibarren egun batean arratsalde erdian. Eta orduan tropikoa. Demaseko euri zaparrada goitik behera. Sandaliak bustita kalean zebiltzanek, eta hondartzakoak, zer esanik ez. Euskal Herri Tropikala Amaia. Eguraldiak ere ez daki zer egin.

Holaxe portatu zen eguraldia Amaldoren manifa egunean ere. Goizean eguzkiak indartsu ekin zuen, itxaropentsu, besteoi indarra, argia eman nahian. Baina ordua gerturatzen ari zela, bera ere indarrik gabe geratu izan balitz bezala. Negar egin zuen goitik, eta indartsu. Farolak piztu ziren orduan, gogoratu nahian, badela argirik oraindik.

Tropikala baina Euskal Herria den honetan, hurrengo egunean ere eguzkia ateraz zen eta.

ZOZOAK BELEARI...



AMAIA GORROTXATEGI

Euskal Herri tropikala ez da Euskal Herria. Hori dirudi behintzat. Euririk gabe bizitzen ez al ginateke aspertuko? Baietz pentsatzea izango litzateke onena. Egunero eguzkia izango bagenu andaluzak lez, gitarra hartu eta kale izkinan kantuan egongo ginateke, bestelako ardurarik gabe. Beharbada, horrela ez ginateke euskaldunak izango. Baina batzuetan, horrela bizitzen asmatuko nukeela iruditzen zait. Aspertu naiz euriaz, zeruak ere negar egiteaz, eguzkia bero dagoenean ere badaezpada aterkia hartu behar izateaz, norbaiti lainoak elkarrekin talka egiteraino haserraraztea bururatzen bazaio ere. Ekaitzaren ondoren barealdia omen dator, ez dakit ba nik. Barealdiaren ondoren ekaitza bai, etortzen da Euskal Herria. Ezagutzen duen guztiak maite du, eta Euskal Herriari buruz entzundako eta (gu ezagutu aurretik sinetsitako) gaizkiesan zaparrada siri-miri hutsa bihurtzen da, indarra galtzen du errealtatea ikustean. Gugan sinesteko garaia heldu da. Asko zapuzten saiatu arren ikaragarri kultura aberatsa dugu, Europako hizkuntza zaharrenetako baten jabe gara, eta kentzen diguten guztiak guretzat izango da laster batean, inportatuko genituzke naranjak (no problem). Euskal Herria tropikala izango balitz perfektua izango litzateke. Eta ez dakit noizbait existituko ote den, baina oraingoz, zoritxarrez, perfekzioa ez omen da inon existitzen.

«Euskal Herri tropikala, eguraldiak ere ez daki zer egin»

AINHOA

«Euskal Herri tropikala ez da Euskal Herria»

AMAIA



EGURALDI TXARRARI EZ DAGO BEHETIK EZER EGITERIK



Esaera zaharra

Zorionak eta eskerrik asko Olalsa eta Aterpe!

Lerro hauekin eskerrak eman nahi dizkiegu Olalsa eta Aterpeko jokalariz guztiei! Aurten kriston denboraldia egin dugulako! Ez sinisteko modukoa! Nork esango zigun denboraldi hasieran, aurten lortu dugun guztia lortuko genuela!!

-Aldundiko txapeldunak: ATERPE

-Gipuzkoako txapeldunak: OLALSA

-Euskadiko txapeldunak: OLALSA

Eta bukatzeko gainera, Espainiako Txapelketako lehenengo fasean (Almerian) bigarren postua lortu genuen! Eskerrak eman nahi dizkiegu, bai guraso, anai-arreba, lagun eta SANLO EKT-ko partaide guztiei!! Eskerrik asko laguntzeagatik eta hor egoteagatik urte guztian zehar!! Kristonak zarete!! Egia esan aurten goa ez zaigula ahaztuko, eta urte guztian zehar bizi izan dugun dena ere ez!

Ez aldatu inoiz neskak!! Segi orain arte moduan!! Eskerrik asko!

Ekainaren 30ean gurasoen aurkako partidurako ez egin ilusiorik (guraso, anai-arreba...) guk irabaziko dugu-eta (ATERPE eta OLALSA)!!

Joxe Martin, badoala mendira, (bis)

Ria ria kataplaun!

Eta bidean krabelinak hartu ditu... (bis)

Ei gaztetxo emaidazu lore bat (bis)

Emango dizut nirekin ezkondu ezker (bis)

Ezkondu ziran eta Txinan bizi dira (bis)

NEREA GIL ETA LOREA GABILONDO

Eskerrik asko, bazoaztenoi, eta ongi etorri, berrioi!

Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteak eskerrak eman nahi dizkizue, publikoki, Maribi Agirregomezkorta alkateari eta lau urteotan gure lanaren alde egin duzun zinegotzi guztioi. Eta, bereziki, eskerrak eman nahi dizkizuegu Euskara eta Gazteria Saileko buruoi, Miren Arrate Arrietari eta Jon Zubiaurreri, hain justu ere, zuokin jardun baitugu lanean, batez ere.

Eta bazoaztenoi agur esatearekin batera, ongi-etorri esan nahi dizuegu hurrengo lau urteotan Elgoibarko Udaleko alkate eta zinegotzi izango zaretenoi. Gure nahia, datozen lau urteotan ere bi erakundeon arteko harremana eta lankidetzak sakontzea eta aberastea izango da.

Gure desioarekin bat egingo duzun esperantzarekin,

ELGOIBARKO IZARRA KULTUR ELKARTEA

Elgoibarko agintari txit jakintsuei, zorionak!

Lortu duzue Madalatik beste zuhaitz bat kentzea. Zer espero zenuten ba, zuhaitza zementuz inguratuta? Lehen bazen han, Elgoibar erdian izan den azken berdegunea eta orain gelditzen diren azken arbolak ere, hil egingo ziren iazko San Bartolomeetan zementutik askatu ez balira. Gero hainbeste diru izkina guztietan olibondoak jartzeko! Olibondoak, lorontziak eta errotondak oso ondo egongo dira, baina ez dira parkeak eta jendea ezin da bertan ibili.

Besterik gabe, komunean nengoela zuekin gogoratu naiz.

O.C. 72313091X

E-POSTA

barren@elgoibarkoizarra.com



BARRENez ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak, NAN** eta **telefono zkia**.



barren

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 74 41 12 • Faxa: ☎ 943 74 37 04

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: ☎ 943 74 37 04 • E-posta: barrenpubli@elgoibarkoizarra.com

Argitaratzailea:



ELGOIBARKO IZARRA
KULTUR ELKARTEA

ZUZENDARIA Enrique Bert **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Esther Gurrutxaga **PUBLIZITATEA** Eider Iriondo **MAKETATZAILEA** Jaione Unanue **KOLABORATZAILEAK** Antton Alberdi, Uxue Alberdi, Oihana Apellaniz, Eguzkiñe Aranberri, Jon Eugi, Ion Garate, Aitzol Gamendia, Juanito Gorostiza, Amaia Gorrotxategi, Sare Gurrutxaga, Imanol Larrañaga, Ainhoa Lendinez, Jesus Mari Makazaga, Ainhoa Mendibil, Ane Odria, Maialen Olazabal, Jasone Osoro, Iñigo Otaño, Alain Ulazia, Maite Uriarte, Unai Villena, Alaitz Vives **INPRIMATEGIA** Gertru **TIRADA** 4.645 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1038/92 **ISSN** 1139-1855



KEXAK

• Trinitate jaietako herri kirolen erakustaldian umeak kirol gunera sartzan ibili ziren: “Plaza Handian egin zen herri kirolen erakustaldia Trinitate jaietan eta kirolariak lanean ari ziren bitartean, umeak kirol gunera sartzan ziren etengabe, arrisku handia sortuz. Honelakoetan gurasoak edo udaltzainak umearen gainean egon behar direla iruditzen zait”.



GALDERA

• Plaza Txikiko OTA zerbitzuko makina izorratuta dagoenean ere, aparkaldia mugatua al da?: Herritar bat baino gehiago etorri zaigu azkenaldian galdera hau eginez, izan ere, denbora asko darama OTako makinak izorratuta eta jendeak ez daki aparkaleku librea den edo ez. Udaltzain buruarekin jarri gara harremanetan eta ondorengo esan digu: “Makinak ez du tiketa ematen, hala ere, makina ondoan dagoen seinaleak, gehieneko aparkaldia ordu eta erdiko delat adierazten du. Aparkalekuak urdinez daude margotuta, horrek ere denbora mugatuko aparkalekuak direla adierazten du. Denboraren zainketa udaltzainak ari dira egiten”.



TXALOAK

• Eskerrak eman nahi dizkiogu Ana Ansola piano irakasleari: “Eskerrik asko Ana, bihotz-bihotzez, ikasturte honetan ere gure irakasle eta lagun izateagatik. Zure ikasleok izugarri maite zaitugu”.

• Elgoibar Ikastolako 3. mailako ikasleen entrenatzaileak txalotu nahi ditugu: “Aurtengo ikasturtean 3. mailako ikasleen entrenatzaile izan diren Aitor Arrese, Ion Belaustegi, Imanol Aranbarri, Iñigo Legorburu, Aitor Etxeberria eta Iñaki Maiorari, mila esker”.

• Txalo bero bat Josu Mujikari dantza saio bikaina eskaini zutelako: “Kamareras taldekoen partez txalo bero bat Josu Mujikari eta eskerrak eman nahi dizkiogu eskaintzen digun denbora eta pazientziagatik”.

• Txalo bero bat 55 urtekoen bazkaria antolatuta zutenei: “Eskerrik asko antolatzaileei, egun bikaina pasatu genuelako”.



Aital honetarako kexak, txaloak edo galderak helarazteko:

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com
Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12



Elgoibarko
Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza





URRUZUNIOREN *Luma*

Ikuspuntuak

Gauzak nondik ikusten diren arabera, alde handia omen dago. Uneoro nabari da hori: norbere ikuspuntua aurrean topatzen dugunari azaldu nahiz pasatzen dugu bizitza. Demostratu, ulertarazi nahi diogu gure ikuspuntua dela justuena eta errealitatera gehien hurbiltzen dena, eta noski, geuk bakarrik ez, gainontzeko guztiak ere horixe egiten dute. Horrela, elkarriketa guztiak indibiduo ezberdinen monologoan pilaketa amaiezinak bihurtzen dira. Ez dio inporta komunikabideetan, politikan, lanean zein lanunartean izan: beti da berdin.

Asperu naiz ikuspuntu kontrajarrien arteko hari finean ekilibrista gisa aritzeaz. Asperu naiz nire hondarrezko gaztelua inorena baino sendoagoa dela uneoro demostratu behar izateaz. Azken finean, hondararekin ez da gauza sendo askorik eraikitzen, horixe da ulertzen dudana egia bakarra. Beste guztia erlatibo da, segun nondik ikusten den...

Iñigo Otaño

[ZORTZIKO TXIKIAN]



MIREN SAGASTA

SAGAS ZAPATA
DENDAKOA

• Zein ezaugarri ditu oinetako on batek?

Narruzkoa izatea da onena, izerdiarentzat, eta suela kautzkoa ez labaintzeko.

• Urtaro bakoitzak bere oinetakoa?

Bai. Udaberri-uda denboraldirako sandaliak ezinbestekoak dira, eta lonetazko zapatilak, eta euritarako zapatak ere bai. Negurako bota on bat eta euritarako katuskak.

• Oina babestea garrantzitsua al da?

Bai. Umeak ibiltzen hasten direnean oina ondo heltzea garrantzitsua da. Egokiena oinetakoak aldatzea da.

• Kirol zapatilak ez direla egokiak diote...

Hori diote! norbere hankaren forma hartzen du zapatilak eta hori ez da ona. Egunero erabiltzea ez da komeni.

• Norentzako zapatak dituzu zure dendan?

17 zenbakiik hasita 40ra arte. Takoia gustuko ez duten gazte batzuk ere erosten dituzte botak hemen!

• Zein kolore daude modan udaberri-uda honetan?

Bailarinak purpurinarekin oso modan daude, ume eta nagusietan. Umeetan pistatxo, naranja eta gorria dira nagusi.

• Gehien saltzen diren oinetakoak?

Geox-ak oso ondo saltzen dira, modan daude, gainera oso onak dira izerdiarentzat, batez ere.

Udan ere busti egingo gara



www.elgoiBARREN.net

[AKORDATZEN NAIZ]



ITZIAR AJURIA

1924an jaioa

«Telebisua»

Guk umetan ez genduan telebisiorik ezagutzen, etxian ez zaskagun telebisiorik. Haura ekari genduanian izan zan sekulakua. Gure amakin zenbat barre telebisuan kontura. Edadian aurrera ama, eta telebisua gauza berrixa: eziñ ulertu harek. Astronautak illetargira jun ziranian, handik bueltan bizar haundixakin azaldu ziran telebisuan, eta gure amak esan zaban: "Jesus, jentian aurrian urtetzeko kendu zeikian, ba, horrek bizarra!". Handik egun batzuetara beste imagiña batian bizarrik gabe azaldu zan, eta gure amak: "Entzun egin jan, kendu jon bizarra!". Zenbat barre egin gendun.

Askotan, bazkaltzen ari giñala, telebisua emetatzeko esaten zaban: "horrek ez dauke zertan jakin guk zer jaten dogun!". Beste gau baten ere, aman kontura barrezka jardun gendun. Danok su aurrian jarritta, telebisuari begira, "Cesta y puntos" programia ikusten. Argixa jun zan, eta harekin telebisua ere bai. Ama jaiki, eta telebisuari jo zion esanaz: "oiga, aqui no vemos nada". Segiduan etorri zan argixa, eta berriz ere, "ezetz esaten dozue, baiña entzun egin jan". Ederra inbentua, telebisua!



Radixua ere asko entzuten gendun; radionobelak gustatzen jatazen mordua. Josten ari giñala, sastrerixan, baten bat sartzen bazan nobelia entzuten geundela, ez giñon kasorik egitten. Bijañte bat etortzen zan Billbotik, eta, nobelia amaittu arte, harek siestia botatzen zaban. Oiñ etxataz batere gustatzen telebisioko nobelak. "Abigail" Venezuelakua eman zeuben, eta ezin laga, aizul! Ordu horretan ez zaguan besterik. Gero beste bat hasi zan, polita haura ere, baiña orduz aldatu zeuben, eta ezin naban ikusi. Eskerak!

Goenkale ere hasi nintzan ikusten, baiña laga egin naban. Gitxi ikusten dot telebisua, Teleberri gustatzen jata, baiña deportiak hasten diranian, akabo! Gurian beti Athletic-zaliak izan gara, baiña hainbeste deporte telebisuan... aspertu egitten naiz.

[GURE BERBAK]

*Fonologia (14):
Z/TZ alternantzia*

Alternantzixekin segittuz, beste era batekua jorratuko dogu gaurkuan. Txistukarixetan gertatzen dan bat, hain zuzen: Z-ren eta TZ-ren artekua eta X-ren eta TX-ren artekua.

Hiztun beraren ahotan ere, normala izan leike hitz beraren bi aldaerak erabiltzia.

Hona adibide batzuk:

*berritz / berriz
errez / erretz
penditz / pendiz
xamar / txamar*

Berriz-en kasuan, jakiña da bi erabilera dituala; horretatik, adberbiua da batez ere alternantzia izaten dabana, bixetara esaten dana (*berritz/berritz egingo dogu*); lokailuak (*Semia mendira juan zan; aitta, berriz, kalera*) aldaera frikaria izaten dau normalian.

Hona alternantzia honen adibide batzuk:

*Len-len bai, eta gero laga-aldixa, eta gero, berriz.
Astelehenian, lanera berriz ere.
Baju txamar entzunda, hobe dok hori.
Eta oiñ, eskribitzeko ta, erderaz erretzago dok, e!*

Jesus Mari Makazaga



UDAL
EUSKALTEGIAK

**Lan poltsa osatzeko
IRAKASLEAK behar ditu**

Oinarriak eskuratzeko ondorengo helbidean: www.elgoibar.org

Elgoibarko Udal Euskaltegian: goizeko 09:00etatik 13:00etara.
Nafarroa Enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR • Tel.: 943 74 27 31


DROGAMENDEKOTASUNA EHOTZEKO JENDE BILA

Errotatxo elkarteak urte luzetan jardun du drogamendekotasunak eragindakoekin lanean baita HIES gaitzarekin kutsatutakoei laguntza ematen ere. Errotatxok prebentzioa, laguntza eta informazioa landu ditu batik bat. Erreferente izan da herrian elkarteko boluntarioen lana. Garaiak aldatuz doaz. ordea, eta droga oraindik arazo den arren, badirudi beste begi batzuekin begiratzen diogula arazo horri. Urte luzetako lanaren ondoren, Errotatxo elkartearen une honetan dihardutenei zailtza sortu zaie elkartearen beharraren inguruan. Hori dela eta taldearen bilakaeraren berri eman digute eta etorkizunari nola aurre egin pentsatzen ari direla ere azaldu digute.

Errotatxo elkarteak guraso batzuk sortu zuten 1985ean. Kezkatuta zeuden euren seme-alabak hiltzen hasi zirelako batez ere, eta ez zekitelako zergatia. Horren aurrean gurasoak elkartu eta orduan hasi ziren ikertzen, HIES kontuak entzuten, baita garai hartan nondik zetorren ere: toxikomanoen inguruan, xiringak partekatzen zituztelako hartzen zuten batez ere. Errotatxo elkartearen diharduen Maider Gastesik esan digunez, "hor hasi ziren duela prozesua lantzen. Hasieran eskatzen zuten informazio gehiago. Izan ere, Eusko Jaurlaritzak ez zeukan informaziorik, ez zeukan inolako sistema zehatzik gai hori lantzeko. Beraz, talde lanaren ondorioz lortu zuten buru bat jartzea Osakidetzan gai honen harira; beraien seme-alabak atenditzeko zerbitzuak ere eskatu zituzten. Horiek ziren azken finean euren eskariak: informazioa eta zerbitzua".

Aldarrikapen elkarte moduan hasi zen Errotatxo. Hasieran DEE (Drogamendekotasunak Eragindakoen Elkarte) zen baina gero pasa zen izatera *Comision ciudadana para la prevencion de drogodependencias y SIDA Errotatxo* izenpean herrian lan egiteko ardura hartu zuen.

Amaia Martinez de Bujo, Andoni Segundo eta Camelia Vazquezek hartu zuten besteak beste lekukoa taldean. "Cameliak alaba galdu zuen drogaren eta HIESaren ondorioz eta alaba hil ostean, sartu zen informazioa zabaltzeko mugi-



**Aldarrikapen
elkarte gisa
hasi zen
Errotatxo**

menduetan, hitzaldiak emanez. Sarritan esaten du bere dueluari aurre egiteko modua izan zela berak falta izan zuen informazioa eta laguntza besteei ematea", kontatu digu Maider Gastesik.

Errotatxo pasa zen aldarrikapenetik zerbitzua eta laguntza ematera. Batik bat laguntza, sendagileekiko harremanean, Errotatxok laguntzen zien probak egitera nora jo behar zuten esanez, zein medikazio hartu behar zuten, administratiboki zein diru laguntza jaso zezaketen...

Urteen poderioz drogen arazoak eta HIESak bere garapena izan du eta pasa da hilkorra izatetik nolabait kroniko izatera, gaixoak bizirik mantendu arren efektuak oso gogorrek dira. Horrek eragin du biztanleria baretzea. Kutsatzeak ez dira gelditu, nahiz eta hainbeste gauza jakinda uste izan gutxitu egin beharko lirakeela edo gutxienez jendea arduratu bere osasunarekin.

«Jarraitzeko inor ez badago beharbada Errotatxoren bidea honaino iritsi da»

Elkartek berak ere izan ditu aldaketak denboran aurrera joan ahala. Mainer Gastesik kontatu digu elkartek azken aldian behera egin duela: "erabiltzaileek ordura arte intimitatea zuten, jende berria egonik nola inguratu ez zekiten, edo ez ziren horretara lehen bezala ausartzen. Zerbitzua eman zen urte eta erdian baina ez zen inor agertzen. Gero bertan genbiltzanon aldetik ere hainbat aldaketa izan ziren, aldaketa pertsonalak eta elkartearen jardunean ere aldaketak ekarri zituen horrek. Pasa ginen aldarrikapenekin jarraitze- ra, herrian egiten ziren jardueri babesa ematera eta HIESaren prebentzio astea antolatzea bakarrik. Baina jendeak zuzenean elkartearekin harreman sendoago bat izatea ez dugu lortu, ez ditugu engantxatu".

OHARRA

Norbaitek Errotatxo Elkarteko kideekin harremanetan jari nahiko bala informazioa eskuratzeko zein boluntario lanetan jarduteko, honako telefonora dei dezake: **635 969 343**.

ETA ORAIN ZER?

Gaur egun, Errotatxoren funtzionamenduan Jokin Martinezek eta Mainer Gastesik dihardute batik bat. "Baina beste lan batzutan dihardugu biok ere eta zaila da elkartearen modu honetan eramatea", esan digu Mainerrek. "Hortaz, gure zalantza da nola deitu jendeari, nola gazte jendea elkartearen sartu".

Elkartekoen zalantza da Errotatxok bide berri bat egin behar duen ala ez, hori ere zalantzan jartzen dute. "Alde batetik notizia ona da horrelako elkarte batek "lanik ez izatea", baina era berean ez guke nahi orain elkartearen gaudenon nekearengatik edo beste ardura batzuk ditugulako geratzea jendea bere iniziatibak edo inketudeak ateratzeko modurik gabe", diosku Mainer Gastesik.

Beraz, Errotatxok ateak eta baliabideak zabalik ditu, jenderik balego ideiekin elkartearen jarduteko. "Egon litezke era berean honetan jardun nahi dutenak nahiz eta ideia garbirik ez izan (bai iniziatiba boluntario bezala edo ikusmira baita profesionalak lantzeko)", esan digu Mainerrek.

Drogen arazoak behera egin duen galdetuta, Mainer Gastesik esan digunez, "kontsumoak jarraitzen du eta jarriatuko du; baina zaila da jakitea zein neurritan. Jakin badakigu

kontsumoa badagoela eta gero eta nahasiagoa dela: marrak, koka, heroina ere sartzen ari dela diote, ketamina... sekulako kaosa dago".

Errotatxoko kideek bide berriari ekin ziotenean pentsatu zuten aholkularitza zerbitzua eskaintzea, baina ez zen inor azaldu eta proiektu horrek ez zuen aurrera egin.

Hortaz, taldeak aurrera jarraituko badu erreleboaren beharra ezinbestekoa da. "Jarraitzeko inor ez balego planteatu beharko genuke Errotatxoren ibilbidea honaino iritsi dela. Baina bertan jardun dugunok lan pila bat egin dugu eta ez dugu nahi bertan behera geratzerik. Azken inpulsoa beharrezkoa da. Herriko jendea inplikatu beharko litzateke".

Drogei eta HIESari garai batean zitzaion beldurra pasa dela dirudi, jendea ez da garai batean bezala HIES gaitzak jota hiltzen, drogazalearen irudia bera ere aldatu da, ez da kalean botata ikusten genuen giza-joa. Hortaz, arazoa egon badagoen arren, errespetua galdu zaiola dirudi.

Errotatxo gertu dago horretarako, baina indarberritzea ezinbesteko zaio. Errotari eragingo dion herritarrik balego gustuz hartuko dute taldean urak ahal diren neurrian onera ekartzeko.



[PROTAGONISTA]



Alfredo **Etxeberria**

Datozen lau urteotan herriko alkate izango da Alfredo Etxeberria. 40 urte ditu, ezkondua eta bi urteko alabaren aita da Ona Electroerosion enpresako atzerriko arduradun komertziala. Gaztetatik politikan jardundakoa, orain ere politika giroa nahasia izan arren, alderdi guztiekin adostasunak bilatu eta herriaren alde lan egiteko gertu azaldu da. Esan du EAJren lehentasuna Elgoibar orekatua lortzea dela eta horretarako egingo duen lehen gauza da alderdien programak azertu eta adostasunak lortzen saiatu; baita Udal talde berriari aurkeztu herri lanean jarduten duten elkarte, enpresa, ikastetxe...

[NOTIZIA]

EAJ alderdiaren zazpi botorekin izendatu dute Alfredo Etxeberria alkate



Ekainaren 16an, eguerdian, egin zuten udalbatzar berezia Udalbatza berria osatzeko. Ovidio Campello zinegotzirik zaharrenak eta Jon Zubiaurre gazteenak adineko mahaia osatu eta zinegotzi guztiak euren kargua hartu ostean, alkatea aukeratzeko bozketa sekretua egin zuten.

Botoak zenbatuta gehiengo absolutura iristeko nahikoa boto lortu zuen hautagairik egon ez zenez, boto gehien jaso zituen hautagaia, EAJko Alfredo Etxeberria izendatu zuten alkate, zazpi botorekin. Lau boto eskuratu zituen PSE-EEko Ovidio

Campellok; bi boto EB Berdeak-Aralar koalizioako Unai Zulaikak eta gainontzeko lau botoak zuriak izan ziren.

Behin Udalbatza osatuta, batzordeak eratzeko eta ardurak banatzeko ordua da. Horretarako asteon batzarrak egitekoak ziren. Boto gehien eskuratu zituenez EAJ alderdiari dagokio ardurak hori. Euren asmoa da hamabost egunen buruan banaketa egin izatea, eta ondoren, udalbatzara egingo dute batzordeen eta batzorde buruen berri emateko. Hala ere, euren esanetan oraindik goiz da banaketa hori nolakoa izango den esateko.

asteko [ARGAZKIA]



Udalbatza berriaren eraketa, protesta artean egin zen zapatuan. Zerrenden baliogabetzea salatu zuten oihuka pleno aretora bildutako EAE-ANVren jarraitzaileek. "Herriaren hitza errespetatu" eta "Hau ez da demokrazia" oihukatu zuten besteak beste baita txistu egin ere. Plenoa zaratsua izan arren ez zen aparteko istilurik sortu. Udaltzainak jarri ziren zinegotzien eta herritarren artean. EAE-ANVko zerrendako lehen hiru hautagaiak zinegotzien mahaian eseri ziren eta esan zuten: "lege espainiarraren izenean ez da herriaren borondatea errespetatu".

Gaz-T eta Atxutxiamaikako Udalekuetan 263 umek hartuko dute parte



Udan sartzeaz gaude eta Atxutxia- maika eta Gaz-T aisialdi taldeek udalekuak antolatu dituzte. 2 eta 8 urte bitarteko 142 haur ibiliko dira udaleku irekietan. Goizetan igerilekura irteerak, San Fermin Txiki Eguna, Euskal Jai Eguna... egingo dituzte besteak beste. Aurtengo berrikuntza da 5 eta 8 urte bitartekoek, astean irteera bat egingo dutela, eta arratsaldeko 17:00ak arte egongo dira begiraleekin. Irteera horiek antolatzeke Morkaiko mendizale Elkartearekin jarri dira harremanetan antolatzaileak eta irteera batzuk elkarrekin egingo dituzte.

Udaleku itxiak Askizun eta Astitzen

Udaleku itxietan astebeteko egonaldia egingo dituzte. Zumaian, Askizuko aterpetxean, hiru txanda izango dira LHko 3. eta 4. mailakoentzat bi eta beste bat LHko 5. eta 6. mailakoentzat. Guztira 86 neska-mutil izango dira Elgoibar, Mendaro, Usurbil, Bergara eta Soralezukoak.

Astitzera, Nafarroara, Elgoibar, Bergara, Barakaldo eta Usurbilgo DBHko 28 gaztetxo joango dira uztailearen 1etik 10era arte. Bertan, bizikletan ibili, soka zirkuia, arroila jaitsiera, perkusio tailerra, eskulanak eta jolasak egingo dituzte.

San Lorentzo erreka garbiketa zapatu goizean



Zapaturako, ekainaren 23rako, irteera antolatu du gazte asanbladak. Irteeraren helburua izango da San Lorentzo erreka garbitzea. Hitzordua 10:00etan egin dute Madalan eta nahi duenak han azaldu besterik ez du egin behar. Bertatik abiatuko dira San Lorentzo auzorantz erreka zaborrak batzera. Lanak amaitutakoan bazkaria egingo dute San Lorentzon bertan. Ez da erreka garbitzera joaten diren lehenengo aldia eta gehienetan plastikak, botilak, zakarrak jasotzen badituzte ere, behin auto baten hondakinak ere aurkitu zituztela esan digute.

[MOTZ-MOTZIAN]

Immersoko bidaiak

Nagusi eta Gizarte Zerbitzuetako Institutuak (Imerso) adinekoentzako opor programak antolatu ditu. Parte hartu nahi dutenek ekainaren 30era arteko epea dute eskaerak aurkezteko. Ongizate Sailean edo erretiratuen etxean jaso ditzakete orriak. Abuztuan jakinaraziko zaie noiz joan beharko duten bidaia aukeratzera eta irailean agentzietan kosta eta Balear irletako bidaiak kontratatuko dituzte, gainontzekoak Madriletik bideratuko dituzte.

Ingeniaritza eskolako mintegia

IMHk mintegia antolatu du ekainaren 26 goizerako. Helburua da kudeatzaile, giza baliabideetako arduradun, erakundeetako ordezkari eta formazioko adituak bildu, belaunaldien erreleboaren inguruko arazoak elkarrekin aztertzea eta formazio aukera bat eskaintzea, Txandakako Ingeniaritza, esaterako.

Kale antzerkia hilaren 30ean

Biluzik sexologia zerbitzuak antolatu ta Gay, lesbiana, bisexual eta transexualen Nazioarteko Egunaren aitza-kian kale antzerkia izango da. Herriko kaleetan ibiliko dira Medeak taldekoak ekainaren 30ean 17:30etik aurrera. Sexu askatasunaren gaineko *performance* bat egingo dute.

Bai ala Ez lehiaketa

Hilabete honetan Nerea Egaña izan da BARRENeke Bai ala Ez lehiaketako irabazlea. Zumaiako Zelai Talasoterapia hotelean bi lagunentzako zirkuia irabazi du.



Inkesta

40 urte eta gero, Reala bigarren mailara jaitsi da.

Penarik hartu al duzu Reala bigarren mailara jaitsi delako?

AMAIA ERKIZIA

Langabetua

31 urte



“Bai, noski. Esperantza nuen azken unera arte, baina ezin izan da mantendu. Gainera, datorren urtean ez dakit zer gertatuko den, jokalaririk onak taldeetik badoaz-eta”.

AITOR GARATE

Muntatzailea

28 urte



“Pena bai, baina askorik ez. Diru dezente kobratzen dute eta bigarren mailan ere asko jasoko dute. Hurrengo denboraldian igoko balira ongi, baina ez zait askorik axola”.

IRUNE BETELU

Ingurumen teknikaria

38 urte



“Ez. Gainera ez zait futbola gustatzen. Kirolzaletasun horren atzean negozio handia ezkutatzen dela uste dut. Beste kirol batzuek aurrera egin behar dute diru babesik gabe”.

MARIA BLANCO

Umeen zaintzailea

34 urte



“Bai. Ez naiz oso futbol zalea baina pena sentitu dut bertakoak direlako. Reala zein Athletic biak lehenengo mailan egoitea nahi nuke. Datorren urtean Reala igoko dela uste dut”.

[BAI ala EZ?]

Puntutakoko gida baimenarekin egoera hobetu al da?

BAI %76

“Bai, jendeak kontzientzia hartzeko balio izan du eta errepidean ere igartzen da abiadura moteldu egin dela. Inguruan badauzkat puntutak galdu dituzten pare bat lagun.”

EZ %24

“Ez. Hasieran baietz zirudien, kotxeak polikiago ibiltzen ziren toki guztietan, baina denbora pasa ahala, egoera lehen bezala da-go. Ez dut uste irtenbide ona denik metodo hau.”

Datorren asterako... **Uda denboraldia hasi da.**

Egiten al duzu dieta berezirik uda denboraldirako?

Bidali SMS bat:

BARREN (espazioa) ERANTZUNA

7505 zenbakira

SMS kostua: 0'90 euro + B.E.Z.-a.



Hilean behin afari bat zozketatuko dugu **Gabi jatetxean**. Zenbat eta erantzun gehiago, aukera gehiago!

Edergintza

Gorputza erakusteko ardua heldu da



Uda gurekin da jada, eta berarekin batera bikinia, minigonak etab.

Hori dela eta gorputz tratamendu ezberdinak aurkezten dizkizuet gorputza lotsagabe erakutsi ahal izateko.

Hona hemen gorputz tratamendu ezberdinak:

• Zelulitisaren aurka

Retentzio arazoak areagotzean, zelulitis arazoak ere gehitu egiten dira hori dela-eta, "Algas del mar muerto"-ekin egindako bilketa oso egokia da gorputzean dauden zikinkeriak kanporatzen laguntzeko. Gainera eskuz eginiko drenaje linfatikoaz osatzen dugu tratamendua, anpoila kontzentratu eta produktu espezifikoak erabiliz. Tratamendu honekin ur retentzioa gutxituko dugu, bolumena galduz.

• Zirkulazioa hobetzeko benda hotzak

Zain txikiak zein barizeak irteten zaizkigu hanketan, nekatutako sentazioa emanaz, oinak handituz eta estetikoki hankak zatar-tuz. Tratamendu hau zain gehiago ez irteko prebentzioan datza. Criogen deritzon produktu batekin egiten da benden bilketa, hankak fresko eta deskantsatuta sentitzen dira, zirkulazioa hobetuz.

• Tratamendu reduktorea

Orain oso modan dago txokolatea erabiltzea gorputz tratamenduetan eta ez da moda bakarrik, oso emaitza onak ditu, azala izugarri hidratatzen du eta kafeinarekin konbinatuz, gure organismoari koipea erretzen laguntzen dio, koipe molekularak suntsituz hau da, "triglizeridoak". Tratamendu honetan L-caritina sustantzia erabiltzen da. Honek koipea zona jakin batzuetara eramaten du bertan koipea energia bihurtuz.

• Tinkotzailea

Normala den bezala, urteak aurrera egin ahala, gorputzak bere tinkotasuna galtzen du. Hori aurka egiteko lokatz plastikoen tratamendua dugu, masaje eta produktu konketuak konbinatuz emaitza bikainak lortuko ditugu.

• Inpulsoterapia

Inpulso elektriko batzuen bitartez, gure muskuluek lan egitean dago aparatua honen lana. Plaka batzuen bitartez gorputzeko muskulu ezberdinak landu daitezke saio berdinean, honek reafirmatuz, zirkulazioa hobetuz eta zelulitisaren kontra egiten du. 30 minutuko sesioak izaten dira eta lehengo tratamenduen osagarri ezin hobea da. Programa ezberdinak daude, zona bakoitza zehazki tratatzeko.

Etxean mantainua eginez emaitzak askoz hobekak dira beti. Hori dela-eta, tratamenduen arabera, etxerako produktu konketuak eskaintzen ditu, guk geuk etxean gorputza zaintzen jarraitzeko. Kremak, anpoilak, panty edo faja erreduktoreak. Udan gehien saltzen direnak zirkulazioa aktibatzen duten gel hotza eta anti-zelulitikoak dira. Gero eta gehiago zaintzen dugu gorputza eta ez da ahaztu behar arazoa agertu aurretik prebentzioa dela hoberena.

Olaia Martinez - Olaia Estetika



est e t i k a

Egin ezazu otsailean laser depilazioa eta ahaztu udan depilatzeaz.

San Inazio, 4 beheka - Tel.: 943 74 27 25

- Garbiketak
- Makilajeak
- Aurpegi-tratamenduak
- Gorputz-tratamenduak
- Solariuma (horizontala eta bertikala)
- Masajeak
- Manikurak
- Depilazioak



Judith
EDERGINTZA

Errosario Kalea, 19 - Tel.: 943 74 29 50 / 667742118



Maiatzaren 27ko Udal Hauteskundeetan gehiengo absolutua lortu zuen EAJk Mendaron. Joan zen zapatuan esan zuten agur Udal Gobernu zaharreko kideek, eta berria osatu zen. Esti Gonzalezen lekua Irune Berasaluzek hartu du eta berarekin egon gara gaurkoan. Datozen lau urteetarako dituzten asmo eta helburuak kontatu dizkigu.

IRUNE BERASALUZE

MENDAROKO ALKATEA

«ANVkoek udaletxea irekita izango dute, gainontzeko herritarrek bezalaxe»

• **Zer sentitu zenuen alkatearen aukian eseri zinenean?**

Emozionatu egin nintzen! Makala naiz honelako kontuetan eta negar ere, egin nuen. Esti Gonzalezek eman zidan makila, bera ere, emozionatu zen. Hitz batzuk esateko eskatu zidaten, eta ezin nuen hitzik egin. Oso pozik nago, niretzako ohore bat da Mendaroko alkatea izatea. Ilusio handiz eta lanerako gogoz hartu dut alkate kargua.

• **Gehiengo absolutua daukazu. Oposizioari entzungo al diozue?**

Bai, oposizioarekin elkarlanean aritzeko asmoa daukagu, batez ere, EArekin. Guk bost zinegotzi ditugu eta beraiek hiru. Batzorderen baten ardurak eskainiko diegu. Denok ezagunak gara, betidanik udaletxean ibili dira eta ezin dugu gehiengo hori nahi duguna egiteko erabili, ez da gure estiloa. PSE-EEko zinegotzia donostiarra da eta berarekin egotea ez da hain erraza izango.

• **ANVren ilegalizazioak izan al du eraginik emaitzetan?**

Gure kasuan ez. ANVren botoak kontatu genituen, baliogabe guztiak ez dira beraien botoak, eta kontakteta horren arabera zinegotzi bat tokatzen zitzairen. Guk bost zinegotziak mantenduko genituzke, gehiengo izaten jarraituko genuke eta EAK galduko luke bere zinegotzietako bat.

• **Pentsatu al duzu ANVren botoekin zer egingo duzun?**

Momentuz ere digute ezertarako deitu eta plenora ere ez ziren agertu. Harrituta gelditu ginen. Dena dela, udaletxea irekita izango dute, gainontzeko herritar guztiak bezalaxe. Ni ez nago ados alderdien legearekin eta ez dut ulertzen zergatik Deban legalak diren, Mendaron ez, Plaentxin bai eta Elgoibarren ez. Horrek ez dauka zentzurik. Nire ustez, partehartzea izan beharko lukete, beti ere, lege barruan.

• **Zergatik jaso zenuten jipoi hura duela lau urte?**

Arau Subsidiarioen inguruan sortu zen gure kontrako jarrera. Lau urte hauek freno botata eta amasa hartzeko balio izan digute. Herriak berriro ere, gugan jarri du konfiantza eta horrek lasaitasuna ematen digu. Gauzak beste modu batera egiten saiatuko gara, herriak garai hartan erakutsi zuen borondatearen arabera lan egiten saiatuko gara.

• **MTI ez aurkezteak harritu al zaitu?**

Sorpresa bat izan da eta ez dakigu zergatik ez diren aurkeztu. Euren lana eginda utzi dutela esan zuten eta ez direla politikoak, baina zerbait gehiago egongo dela uste dut. Ez ziren duela lau urte estreinakoz aurkeztu, bi legealdi zeramatzatzen udal txean eta gehiengo absolutuarekin alkatezta lagatzea oso arraroa da. Nire ustez, herriak hasieran eman zion babesba galdu egin da. Duela lau urte jendeak konfiantza handia eman zien, ez dakit zer espero zuten, baina badirudi ez dutela espero zuten guztia jaso. MTIren kontrako kritika asko entzuten da kalean. EAJren kontra zegoen giro hura galdu da.

• **Nola baloratzen duzu MTIren lana?**

Ez da lan asko ikusi. Zerbitzu aldetik ez dute ezer sortu. Eguneko Zentrua eta San Agustín Kultur Gunea martxan jarri dira, baina proiektuak aurrez zeuden eginda.

«**Hautzaindegia eta zubi berri bat egitea premiazkoak dira**»

• **Mendaron berehala egin beharreko bi gauza?**

Hautzaindegia berehala egin behar dugu eta herrira sartzeko zubi berri bat ezinbestekoa da. Zubi bakarra daukagu eta zaharra da. Egun batean zerbait gertatzen bada, herrira edo ospitalera sartu ezinik gelditzen gara.



• **Euskara, etxebizitzak, nagusiak eta gazteak. Zein dira zuen asmoak?**

Mendaro herri euskalduna da, baina kanpotik jende asko etorri da eta gero eta gehiago egiten da erderaz. Euskara indartu behar dugu. Etxebizitzetara dagokionez, plan orokorra onartzen denean, hazkunde bat emango da, eta tasatuak egiteko asmoa ere badaukagu. Nagusien atala nahiko ondo daukagu zerbitzu aldetik. Eguneko Zentroan jendea oso gustura dago eta Jubilatuen Egoitza ere legealdi honetan handitu da. Ahal dugun neurrian nagusien bizikaltatea zaindiko dugu. Gazteei, lokal bat ematea adostu da hiru urterako gaztetxe moduan erabiltzeko. Gaztegunea ere martxan jarri nahi dugu.

«**Mendaroko alkate izatea ohore bat da niretzako**»

• **Zure bizitzan zein garrantzia dauka militatzia politikoak?**

Niretzako garrantzitsuena familia da. Nire lana ere bai, negozio propioa daukat eta hori aurrera eramateko sakrifizio handia egin behar izan dut. Politika ere hor dago, txiki-txikitik bizi izan dut etxean abertzaletasunaren sentimendua, herri honekiko daukadan maitasuna txikitatik jaso dut. Nire aitaren familia politikan sartuta egon da. Nik ere urte asko daramatzat politikan. Badauka garrantzia, hemen bizitzeko modu bat da. Mendaro hobetzea da gure nahia, baina Gipuzkoa eta Euskal Herriaren barnean.

• **Eskualdean emakume bakarra izango zara alkate postuan. Nola ikusten duzu emakumeen presentzia politikan?**

Zerrendak betetzeko erabili dira emakumeak, legea betetzeko, baina aurreko postuetan oso emakume gutxi egon dira. Mendaron 9 zinegotzitatik 4 emakumezkoak gara, baina politikan oraindik gizonetzakoak dira nagusi.


GAZTIA NAIZ

elkarriketa...

Markel Bergara

MARKEL BERGARA FUTBOLARI ELGOIBARTARRAK REALEAN JOKATUKO DU DATORREN DENBORALDIAN. BI URTETAN JOKATU DU GAZTE HONEK 2. MAILAN (EIBARREN ETA VECINDARION), ETA DATORREN URTEAN ERE, ZILARREZKO KATEGORIAN JARRAITUKO DU, REALAK EZ BAITU LORTU 1. MAILARI EUSTEA. MARKELEN AMETS BAT BETE DA; FUTBOLARI IZATEA, ALEGIA. BERE BIGARREN AMETSA REALAREKIN 1.

MAILAN JOKATZEA DELA AITORTU DIGU. 21 URTEKO ERDILARI HONEK 2. MAILAN DEFENDATUKO DU REALAREN KAMISETA.



“Maila berreskuratzea izan behar da helburua, baina ez da erraza izango”

Nola bizi izan duzu Kanarietatik Realaren denboraldia?

Gogorra egin jata. Nire betiko taldea da, kanpoan egon arren, bertako partaide naiz eta lagun asko dauzkat bertan. Aurten ezin izan da mantendu, baina espero dugu lehenbailehen igotzea 1. mailara. Helburua 1. mailara igotzea izan behar da, dudarik gabe, baina ez da erraza izango.

Zein izan dira Realaren jaitsieraren arrazoiak?

Zaila da esatea. Ez dago errudun bat, ezin da esan entrenatzailearen edo jokalarien errua izan denik. Egoera orokorrean izan da zaila, baina argi dago gauzak ez direla ondo egin. Ia datorren urtean hobeto egiten ditugun. Azken urteak txarrak izan dira eta aurten oso gaizki hasi zuten denboraldia. Hasiera horri buelta ematea ezinezkoa izan da. Gertu egon da salbazioa, Liga apur bat luzeagoa izango balitz, Realak ez zen 2. mailan egongo.

Osasunarengandik gehiago espero al zenuen?

Bai. Realak duela urte batzuk laga egin zion irabazten eta oraingoan gauza bera espero nuen. Ez da horrela izan.

BARREN

Maletinak existitzen al dira?

Irabazteagatik existitzen dira, azken batean, "primak" dira.

Ba al zeneukan datorren urtean 1. mailan jokatzeko esperantzarik?

Bai. Oraindik ez dut 1. mailan debutatu eta baneukan ilusioa. Baina niretzako Realean jokatzeko aurrerapausu handia da, nahiz eta 2. mailan egon. Oso pozik nago.

Nolakoa da futbola 2. mailan?

Diru eta kalitate gutxiago dago. Jendeak diziplina handia dauka, eta garrantzia gehiago ematen zaio taktika eta indarrari. Espazio gutxi lagatzen dira eta jokatzeko zaila izaten da.

2. mailan jokatzeko atzeritarrak mantenduko al zenituzke?

Diferentzia markatzen duten atzeritarrak mantenduko nituzke, baina bertakoei emango nieke lehentasuna. Herria gehiago identifikatzen da etxeko jokalariekin.

Eibar eta Vecindarion jokatu duzu. Nolako esperientzia izan da?

Esperientzia desberdinak, baina gogorrak izan dira. Bi urtetan mailaz jaitea tokatu zait. 20 urteren ostean, Eibar 2.B mailara jaitsi zen, eta aurten Vecindariorekin ere jaitsi egin gara. Jokalariontzat egoera hori oso zaila da. Eibar igoera fasean dago eta kriston ilusioa egingo lidake igotzeak. Lagun mordoa dauzkate taldean, familia bat modukoa da. Benetan desio dut Eibar 2. mailara igotzea.

Azken postuetan egonda, nola ateratzen zarete jokalaria zelaira?

Ez da erraza. Nik ez dut oraindik presio handirik sumatu, baina aurten Realeko jokalaria batzuk presio handia jasan behar izan dute. Jende askoren sentimenduak daude hor atzean eta gogorra da. Igantero final bat daukazu eta egoera horretan jokatzeko zaila da, daukazun erdia ere ez duzu ematen.

Lesioekin urte gogorra izan duzu aurten Vecindarion...

Bai, bost zuntz haustura izan ditut denboraldi berean eta gogorra izan da. Etxera etortzeko aprobeztatzen nituen lesioak.



“Realarekin lehenengo mailan jokatzeko da nire ametsa”

MOTZ-MOTZIAN

- **Liburu bat:** El código Da Vinci
- **Bizitzeko leku bat:** Elgoibar
- **Ametsetako bidaia:** Antartida
- **Janari bat:** Pasta
- **Kolore bat:** Txuria
- **Futbol talde bat:** Real

Zer ikasi duzu Vecindarion?

Maila pertsonalean helduago nagoe-la igartzen dut. Bakarrik bizitzen egon naiz, gauza asko ikasi ditut eta batez ere, familia oso garrantzitsua dela konturatu naiz. Hango bizimodua desberdina da, askoz lasaiago bizi dira. Hemen lanari garrantzia handia ematen diogu eta Kanarietan eguzkia eta hondartza dira inportanteenak. Dena dela, bizitzeko Euskal Herria modukorik ez dago.

Espainiako selekzioaren kamiseta defendatzean zer sentitu zenuen?

Hasieran oso arraroa egiten zitzaidan. Baina nire etorkizuna hartzen nuen kontuan eta ahal nuen guztia ematen nuen. Euskal Selekzioarekin jokatzeko desberdina da, hor sentimenduak daude. Talde nagusiarekin jokatzeko ikaragarria izan behar da.

Gazte askoren ametsa futbolaria izatea da. Zure ametsa bete al da?

Bai, txikitatik nahi nuen futbolaria izatea eta lortu dut, bi urte daromatzat futbolekin bizitzen. Orain beste amets bat daukat, Realekin 1. mailan jokatzeko.

Futbolaria karrera motza da. Etorkizunerako planik?

Momentuz magisteritza ikasten ari naiz eta ikasketak bukatzeko asmoa daukat. Taberna bat ere ireki dut. Futbolak buelta asko ematen ditu.

Futbolaria izatearen alde onak eta txarrak?


Gauza onak gehiago ditu. 2. mailan ere ondo irabazten da, posible da futbolekin bizitzea, eta eroso bizitzea. Egia da, jende guztiak jai daukanean guk lan egin behar dugula, baina berdina zait. Parrandarik ere, ezin dugu egin, baina hauxe da gure lana eta zaindu egin behar gara. Oporretan juergaren bat egiteagatik ez da ezer pasatzen, baina Ligan zehar ezin da.

Egia al da futbolariek asko ligatzen duzuela?

Hori esaten da, baina nere kasuan ez da topiko hori betetzen. Egia da futbolariek neska asko erakartzen dituztela.

JOXERRA ELORTZA PINTOREA

«Erakusketa ez da bakarrik besteek ikusteko; norberak ere ikusten du besteen begietatik»



Elgoibartarra da Joxerra Elortza baina gaur egun Deban bizi da. Lantegia Mutrikun dauka, Laranga auzoan. Pintorea izanik eguneroko irakasle jardunak uzten dion denbora librean margotzeko aprobetxatzen du. Irudi geometrikoekin dihardu azken aldian eta bere lanak Elgoibarren ikusi ahal izango ditugu gaurtik aurrera.

► Noiz hasi zinen pintatzen?

Mutil koxkorra nintzela gustatzen zitzaidan marraztea; gero margotzen ikasteari ekin nion eta pixkanaka sakonago landu dut, Arte Ederak ikasi nituen gero eta gaur egun saiatzen naiz uztartzen Zumaiako institutuko irakasle lana eta pintura.

► Zergatik sentitu zenuen margotzeko beharra?

Beti gustatu zait marraztea, formak eta kolorea islatzea. Niretzat pintura tresna egokia izan da nire gauzak kontatzeko eta denboran aurrera joan ahala pinturarekiko interesa areagotu egin zait gainera.

► Elgoibarrera ekarri duzun erakusketan irudi geometrikoak dira nagusi. Zer dela eta aukera hori?

Garaian garaiokoa egiten dut eta azken aldian irudi geometrikoak lantzen nabil murgilduta. Beti gustatu izan zait familiak eta taldeak antolatzea. Iruditzen zait gauzak horrela antolatuz gero, hobeto ulertzen direla eta esanahi sendoagoa lortzen dutela. Geometriarekin ari naiz planoak, lerroak eta puntuak elementu sinpleak izanik ongi antolatzen direlako eta irudi geometrikoak indartsu eta esanguratsuak izan daitezke.

► Zure ibilbidean erakusketa asko egin arren, Elgoibarren gutxitan ikusi ditugu zure lanak. Zer sentitzen duzu?

Urte asko dira, bai, Elgoibarren ez nuela ezer erakusten; uste dut 26 urte direla. Pentsatu nuen banuela zer erakutsia eta gogoia sortu zitzaidan jaioterria etortzeko. Gauza bitxiak eramango ditut eta uste dut jendearen begirada erakarriko dutela nire lanek. Gainera, lanak besteen begi bistan jartzeak ematen du ikusleekin elkarriketa sortzeko aukera, iritziak jasotzeko aukera. Erakusketa ez da bakarrik besteek ikusteko

baizik eta norberak ere ikusten du besteen begien bidez. Askotan ikusleen begiradak norbere iritzia bideratzen du. Lanaren inguruko elkarriketa bat beti da baliagarria aurrerantzean lanak hobetzeko. Hortaz egingo dut buelta bat edo beste erakusketara.

► Sariak ere jaso dituzu, ezta?

Bai, gustura gainera. Baina azken bozdan ez naiz sariketetara aurkeztzen. Nahikoa sari dira lanak egitea eta erakustea, truke hori.

► Nolako da zure pintura?

Ez da erraza labur azaltzen orain zer egiten ari naizen, baina irudi geometriko hauek sortzen ditudanean figura indartsuak eta esanguratsuak sortu nahi ditut, magiaz eta misterioz beterikoak. Geometria ari naiz logika baten barruan aldaketarako eta mugimendurako aukera asko ematen dizkidalako.

► Etorkizunerako asmo zehatzik baduzu pinturan?

Gustatuko litzaidake nire koadroak gero eta esanguratsuagoak, indartsuagoak, biziagoak izatea. Lana modu sakonagoan egitea ere ez legoke gaizki.

«Irudi geometriko indartsuak dira, magiaz eta misterioz beteak»

JAIAK

San Juan jaiak ospatuko dira asteburuan Altzolan

Altzola auzoan San Juan jaiak ospatuko dira asteburu honetan. Gaur gauean hasiko dira festak eta datorren astelehenera arte luzatuko dira. Ur-

tero bezala, egitarau polita antolatu du San Juan festetako Jai Batzordeak. Ekitaldi aipagarrienen artean, San Juan arbola jartzea eta San Juan sua ditugu.



EGITARAUA

Ekainak 22, barixakua

23:00 Dantzaldia DJ Gorkarekin

Ekainak 23, zapatua, SAN JUAN BEZPERA

14:30 Txapliguak eta kanpai jotzea

20:00 Meza santua eta salbea, santuari zapia jartzea

21:00 San Juan arbola jartzea

22:30 San Juan sua ibaian

23:00 Dantzaldia Eclipse taldearekin

Ekainak 24, domekia, SAN JUAN EGUNA

6:00 Portaletan San Juan adar jartzea

11:00 Prozesioa eta meza santua

Ondoren, herri kirolak

15:30 Mus txapelketa

19:00 Sorpresa handia

22:00 Eclipse taldearekin dantzaldia

Ekainak 25, astelehena, SAN JUAN TXIKI

12:30 Lagun artean elkartu

14:30 Herri bazkaria


17:30 Umeentzako jolasak

19:00 Zezentxo eta poniak

21:30 DJ Gorkarekin dantzaldia

“Meando fuera del tiesto” antzezlan izango da ekainaren 29an Herriko Antzokian

Kunka antzerki taldearen eskutik, “Meando fuera del tiesto” antzerkia ikusteko aukera izango dugu datorren barixakuan, ekainak 29. Gorka Aginagalde, Eloi Beato eta Josean de Miguel aktore ezagunak izango dira protagonistak. Seguritate Sozialaren mundu iluna, bikote bizitzaren petralkeriak, futbolaren miseriak, seme-alabekiko harreman interesatuak, lan munduaren prekaritateak, munduko promiskuorik haundien ohe sekretuak, zentsuraren itzulera, taxisten jarrera petrala eta telefono mugikorren bizitza ulergaitza izango dira besteak beste, landuko dituzten gaiak. Umore garratza, salbajea, ozpintua, korrosiboa, aldrebasa eta probokatiboa darabilte. Ikuskizuna gaueko 22:15ean hasiko da, Herriko Antzokian.



Suaren inguruan egingo dute dantza bihar, hilak 23, Haritz Euskal Dantzari Taldekoek

Euskal Jaien mendeurrena gogorazteko ospakizunen baitan, Haritz Euskal Dantzari Taldeko kideek suaren inguruan egingo dute dantza bihar, ekainak 23. San Juan bezpera izanik, dantza saio berezia antolatu dute. Gaueko 22:15ean hasiko da dantzaldia Plaza Handian (euria eginez gero, ekintza bertan behera geratuko da). Honetaz gain, datorren astean, ekainaren 30ean, Elgoibarko Udaleko Euskara Sailaren eta Haritz Euskal Dantzari Taldearen eskutik, Elgoibarko eta Kanboko dantza taldeen saioa izango da Plaza Handian. Ikuskizun hau arratsaldeko 19:00etan hasiko da eta euria egiten badu Herriko Antzokian izango da. Ekitaldi honekin emango zaie amaiera Euskal Jaien mendeurrena ospatzeko ekainerako antolatu diren ekintzei.

AR KU TIRAKETA

Zarta Taldeko Martin Agirregomezkortak Gipuzkoako txapelketa irabazi du Aire Libreko Arku Tiraketan



Hondarribin jokatu zen Aire Libreko Arku Tiraketako Gipuzkoako txapelketa eta Zarta taldeko Martin Agirregomezkorta izan zen irabazlea. 60 metroko distantzian hartu zuen parte arkulari mutrikuarrak, arku errekuratuen kategorian. Guztira 30 tiratzaile aritu ziren txapelketan, eta horietatik 13 izan ziren arku errekuratuen atalean lehiatu zirenak. Martin Agirregomezkortak maila

bikaina erakutsi zuen. Aurre sailkapen fasean bigarren gelditu zen eta fase finalean lehenengo postuan sailkatu zen. 120 puntu posibletik 107 puntu lortu zituen Zarta taldeko arkulari honek. Esan digutenez, puntuazio ikaragarria da, poliki-poliki gorantz doa eta etorkizun handiko tiratzailea omen da. Txapelketa honetan Iñaki Badiola elgoibartarrak ere hartu zuen parte.

Loiola eta Ibarluzea Gipuzkoako Txapelkun Hiru Txirlo txapelketan

San Migel auzoko Loiola eta Ibarluzea bikoteak Gipuzkoako Hiru Txirlo bolo txapelketa irabazi dute, 63 bolorekin. Bakarkako kategorian Asola Berriko Bittor Astigarraga izan zen irabazlea 41 bolorekin. Xabier Loiola hirugarren lekuan geratu da 36 bolorekin. Taldekako sailkapenean, Eibarko Asola Berri izan zen gairaille 150 bolorekin eta San Migel A taldea bigarren postuan geratu zen 134 bolorekin.

Bi elgoibartar Lakuntza-Aralar mendi lasterketan

334 lagunek hartu zuten parte Lakuntza-Aralar mendi-lasterketan; 26 neska eta gainontzeokak gizezokak. Tartean, bi elgoibartar: Ion Revert (Urgazi Triatloi Taldeko kidea) eta David Conde. Bi lagun hauek mendi lasterketan arituak dira eta denboraldi bikaina egiten ari dira. 30 eta 35. postuetan sailkatu ziren. Revertrek 02:34:24 denbora behar izan zuen eta Condek 02:36:54. 28 kilometro eta erdiko ibilbidean, hainbat gain igo zituzten korrikalariak, eta Irumugarrieta mendia izan zen puntu gorena 1.431 metrorekin.



UDAL
EUSKALTEGIAK

EGA azterketa prestatzeko ikastaroa

Uztaila-Iraila

Matrikulaldia:

Ekainaren 4tik 28ra

Nafarroa enparantza, 2

Tel.:943 74 27 31

etxean bezala / como en casa



SORALUCE
GRUPO DANOBAT

SORALUCE KOOP. E.ak
MUNTATZAILE MEKANIKOAK
BEHAR DITU

Mekanika arloko formazioa
(LH II edo Ziklo Formatzaile Teknikoak)
Esperientzia izatea kontuan izango da.
Lanean berehala hasteko aukera.

Bidali C.V GG.BB.etako departamentura.
Helbidea: Osintxu Auzoa z/g. 20570 - BERGARA
E-mail: soraluce@soraluce.com

NAHASTE BORRASTE

Ekainaren 29an izango da Nahaste Borrasteren XXIII. edizioa

Nahaste Borraste kirol proba herrikoia XXIII. edizioa datorren barixakuan, ekainak 29, jokatu da herriko kale eta errepideetan zehar. Partaideak arratsaldeko 19:00etan aterako dira Plaza Handiik eta 7 kilometroko ibilbidea egingo dute bizikletan. Ondoren, 25 kiloko zakua bizkarrean hartuta, San Bartolome eta Errosario kaleak zeharkatu dituzte. Azkenik, korrika egin beharko dute. Plaza Handian hasi eta Santa Ana, Trenbide kalea, Madala, San Frantzisko eta Errosario kalea pasatu beharko dituzte, Plaza Handian bukatzeko. Iaz David Conde izan zen azkarrena. Hiru aldiz irabazi du herritar honek lasterketa hau. Oraindik hala ere, Martin Dominguezek dauka errekorra, 18:35eko denborarekin. Iaz 28 lagunek hartu zuten parte, horietan



tik bi izan ziren neska eta helmugaratzen lehenengoa Amaia Revert izan zen.

Interesatuak Kimetz Elkartearen (943740737) eman dezakete izena, edo proba hasi aurretik Plaza Handian.

Zazpi elgoibartarrek hartu zuten parte Lekeitioko Triatloian

Pasa den asteburuan izan zen Lekeitioko Triatloia eta bertan, zazpi elgoibartarrek hartu zuten parte; horietatik bost Urgazi Triatloi taldekoak. Herritarren artean Ibon Gabilondo izan zen azkarrena 01:05:56 denborarekin. 20. postuan amaitu zuen proba. Imanol Rodríguez 77. postuan sailkatu zen 01:12:10 denborarekin. Jon Agirreña 119. postuan

sartu zen (01:15:28), Andoitz Agirregomezkorta 184an (0:19:55), Borja Uriarte 205ean (01:21:48) eta Jon Urbietan 220an (01:22:36). Ainhoa Lendinezek nesken kategorian hartu zuen parte eta 21. postuan amaitu zuen proba 01:24:06 denborarekin. Informazio eta argazki gehiago aurkituko dituzue www.blogak.com/urgazi/ webgunean.



Lagunak Pilota Txapelketako finalak

Euskal Jaien mendeurrenaren baitan, Lagunak Pilota Txapelketako finalak jokatu dira bihar, goizeko 11:00etan Plaza Handian (euria bada, Ikastolako frontoian). Partida guztiak 18 tantotara jokatu dira. Txapelketa honetan 40 ume inguruk hartu dute parte. Hauek dira biharko norgehiagokak:

Ioritz Idigoras-Jon Arakistain (benj.)
Felix Konde-Asier Larrañaga (aleb.)
Inigo Plazaola-Ander Gabilondo (kd)
Haritz Arribillaga-Eneko Salegi (kad)

Gazte jaia

Euskal jaien mendeurrena gogorazteko ekintzen baitan, gazte jaia antolatuko dute bihar arratsalderako Udaleko Gazteria Sailak eta Elgoibarko Izarrako GAZT Aisialdi Taldeak. 15:00etan "Euskal Herria" jolasa izango da Plaza Handian eta 17:00etan Skate-Roller ikuskizuna eta praktika, Bike-Trial eta Break-Dance ikuskizunak Meka atzealdeko futbol kantuan. Parte hartzen dutenei kamiseta bana oparituko zaie.

Mintxeta Atletismo Taldea

Mintxeta Atletismo Taldeko kideek ere amaitu dute aurtengo denboraldia. Bihar, zapatua, ekainak 23 denboraldi amaierako bazkaria egingo dute eta urteko Batzar Orokorra ekainaren 27an izango da, arratsaldeko 19:00etan, Mintxetako buelgoan.

Basarte Tenis Txapelketa

Basarte Tenis Elkarteak umeentzako Tenis Txapelketa antolatuko du. Pilar Ikastetxea, Herri Eskola eta Elgoibar Ikastolako umeek hartuko dute parte. Guztira, infantil eta alebin kategoriako 40 ume inguru arituko dira txapelketa honetan. Norgehiagokak Basarteko Tenis pistan eta Olaizaga kiroldegian jokatu dira, goizeko 9:00etatik arratsaldeko 17:00ak aldera arte. Partida guztiak amaitutakoan egingo da sari banaketa. Kategoria bakoitzeko lehen hiru sailkatuek trofeoa eskuratuko dute eta gainontzeko partehartzaileei oparitxo bat emango zaie.

[ETXEBIZITZAK]

SALMENTA

- ▶ Etxea salgai erdialdean. 3 logela, egongela, bainugela, sukaldea, jangela. 120m². Gas naturala, 60m²ko ganbara. ☎ **943741769**
- ▶ Etxea salgai. 3 logela, egongela, sukaldea, komuna, despentsa. Eguzkitsua. ☎ **616213332**
- ▶ Etxea salgai. 3 logela, egongela, sukaldea, komuna. Igogailua, ganbara. Berritua. Garajea aukeran. Prezio interesgarria. ☎ **686208143**
- ▶ Atiko berritua salgai erdialdean. Igogailua, berogailua, komuna, sukalde modemoa, jangela-egongela handia, 2 logela. bitizera sartzeko. ☎ **656780459**

- ▶ Etxea salgai Sorluzen. 2 logela, sukaldea eta bainua. 80.000 euro. ☎ **943772118**
- ▶ Pisu oso polita salgai Altzolan. ☎ **650243359**

ALOKAIRUA

- ▶ Bi logelatako etxebizitza alokatzen da Errosario kalean. ☎ **606707468**
- ▶ Gasteizen pisua hartuko genuke lau ikaslek. ☎ **685764281**
- ▶ Logela alokatzen dut. ☎ **943741881/635206436**
- ▶ 2 edo 3 logelatako etxea hartuko nuke. ☎ **649010179**
- ▶ Logela hartuko nuke alokairuan. ☎ **679873132**

[GARAJE eta LOKALAK]

- ▶ Garaje itxia alokatzen da Santa Klaran. Plazatik gertu. ☎ **669022573**
- ▶ Marradun garajea alokairuan herri erdi-erdian, Santa Ana 2an. ☎ **943743427**

[AUTOAK]

- ▶ Peugeot 1007 ia berria salgai. 75 zaldi, abiadura aldagailu sekuentziala, gasolina, urtebeteko garanzia. ☎ **650693070**
- ▶ Renault 21 GTS autoa salgai. 90 zaldi. Egoera onean, margotu berria. Gris metalizatua. ☎ **699608536**

[BESTELAKOAK]

- ▶ Errepiderako 2 bizikleta salgai. Zeus eta Allan aluminiozko koadrak. 52 neurrikoak. ☎ **943743959 (Javier)**
- ▶ Untxartak salgai. 2 hilabetekoak. ☎ **658740788**
- ▶ Logela salgai, egoera onean. Armairu handia, 1,3seko ohea, komoda, 2 mesanotxe. ☎ **669916148/943531648**
- ▶ 4 llanta, AMG II, Mercedes replika 18 pulgada, neumatikoak Pzero Rosso 245/40 18. Oso egoera onean. 1.200 euro. ☎ **628526697**
- ▶ 2. eskuko izozkailua salgai. Bertikala da, hozkailua modukoa. ☎ **639390808**

OHARRA

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak lau astetan agertuko dira. Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta 12 euro eta alokairua 8 euro. Autoak 8 euro. Eta bestelakoak 5 euro. Asteazken eguerdia baino lehen. Tel.: 943 74 37 04

LANA

ESKAERA

- Emakume gaztea kamarera, umeak edo nagusiak zaindu edo garbiketak... egiteko prest. ☎ **626394831**
- Emakumea umeak edo nagusiak zaindu edo garbiketako egiteko prest. ☎ **638527915/943740367**
- LH, DBH, matematika, fisika, marrazketa... klase partikularrak udan. ☎ **653717972**
- Emakumea garbiketako lanak egiteko prest. ☎ **943742201 (13:00-17:00 edo 20:30etik aurrera)**.
- LHtik DBH2ra arteko klase partikularrak ematen dira uztailean, goizez. ☎ **943742855**
- Neska gaztea umeak edo nagusiak zaindu, kamarera edo sukalde laguntzaile lanetarako prest. ☎ **626394831**
- Emakume euskalduna alzheimerrean duten gaixoak zaintzeko prest. ☎ **943742330/660511781**
- 2. mailako ofiziala lanerako prest. Eraikuntzan, garbiketako kamarero... ☎ **661225149**
- Emakumea umeak edo nagusiak zaindu edo garbiketako egiteko prest. ☎ **639520378**

- Emakumea umeak edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ **671476869**
- Emakumea umeak edo nagusiak zaindu edo garbiketako egiteko prest. Papelekin. ☎ **649010179**
- Gizonezkoa eraikuntzan edo pinturan lan egiteko prest. ☎ **677617031**
- Emakumea nagusiak zaintzeko prest. ☎ **943741977**
- 19 urteko neska umeak zaintzeko prest. ☎ **943741977**
- Emakumea gaixoak zaintzeko prest, egunez edo gauzez. ☎ **943172896 (Mertxe)**
- Emakumea umeak edo nagusiak zaindu edo garbiketako egiteko prest. ☎ **638221948**
- LHko klase partikularrak eskainiko nituzke uztailean, goizez. ☎ **676753957**
- LH eta DBHko klase partikularrak eskainiko nituzke udan. ☎ **943531054**
- Mutila umeak edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ **676500959**
- Emakumea umeak edo nagusiak zaindu edo garbiketako egiteko prest. ☎ **699813826**

ESKAINITZA

- Arotz laguntzailea behar da. ☎ **653707837**

- Zarautzen ile apaintzailea behar da. Kontratu finkoa eskaintzen da. ☎ **943890281/678659118**
- Euskaraz dakien pertsona behar da umeak zaintzeko. ☎ **685750083 (19:00etatik aurrera)**
- Kamareroak, sukalde laguntzaileak eta garbitzaileak behar dira. Kontratu eskaintzen da. ☎ **688623668**
- Lorazainak behar dira Elgoibarran. ☎ **943761756**
- Jantokirako kamareroa behar da. Ilandetan jai. ☎ **943740580**
- Arropa denda batek neska euskalduna behar du. Esperientzia, informatika menperatzea eta gida baimena baloratuko dira. ☎ **943741129**
- Asteburu eta jai-egunetan gosalindegian lan egiteko pertsona behar da. ☎ **943740241**
- Fisioterapeuta behar da. 8 ordu, lan lasaia, irabazi onak. Kurrikulum-a bidali: Fisiolantaldea, Aranatar Sabin 3, behea. 48.700 Oндarrosa. ☎ **607824892**

- Neska edo mutil euskalduna behar da tabernarako. Astegunetan eta asteburuan txandaka. ☎ **943742897**
- Emakume euskalduna behar da umeak zaintzeko. ☎ **685750083 (19:00etatik aurrera)**
- Mendaroko kafetegirako sukalderia behar da. ☎ **943030150**
- Gabi jatetxerako kamareroa behar da. ☎ **943741230**
- Dendarako langilea behar da. 30-45 urtekoa. Esperientzia ehunki dendetan. ☎ **943744457**
- Jatetxerako garbitzailea behar da. ☎ **943127334**
- Jatetxerako kamareroa behar da. ☎ **943121262**
- Kamareroa behar da egunero lan egiteko. Kontratuarekin. Esperientzia. ☎ **617250429**

ABISUAK

- Giltz bat aurkitu dut Artekalera eskailera mekanikoen inguruan. Amona mandangorriak ditu. Udaltzaingoa laga du.
- Urte eta erdiko setter ingelesez oparitzen dut. ☎ **639313329**
- Urrezko eraztuna topatu dut. Judith jartzen du. Umearena dirudi. ☎ **639971977**

[ZORIONAK]



▶ Zorionak **Maider** zure 5. urtebetetzean. Gurasoen eta anaia Anderren partetik.



▶ Zorionak etxeko **sorgin-koari** bere 2. urtebetetzean.



▶ Zorionak **Malen** hilaren 19an urtetxo bat egin zenuelako. Muxu handi bat etxeko guztien partetik.



▶ Zorionak **Iker!** Bi muxu potolo ikastolako laguntxo-en partetik.



▶ Bi super muxu gure super heroiaentzat. Zorionak **Iker!** Etxekoen eta Ireneren partetik.



▶ Zorionak **Nerea** gaur 6 urte egin dituzulako. Familiakoan, bereziki, Julene, Ibai eta Markelen partetik.



▶ Zorionak **Ander eta Iñaki** 13 eta 11 urte egingo dituzulako. Etxeko guztien partez.



▶ Zorionak... ritxar **bikote!** Dantza eta dantza egin beharko duzu Imanol. Aholkatuko dizu Noek nola. Zapatuan egurra! Lagunak.



▶ Zorionak **bikote!** Ez dadila txanpanik falta! Pedruskoko lagunak partez.



▶ Zorionak **Mikel** zure egunean. Familiakoan eta bereziki, Mikel eta Julenen partetik.



▶ Zorionak **Eñaut** ekainaren 27an 7 urte egingo dituzulako. Familiakoan eta bereziki, Haritzen partetik.



▶ Zorionak **Ibare eta Idoial** Koadrilakoan partez, ondo pasa zuen eguna. Askok maite zaituztegu.

▶ Eskerrik asko denoi! Ondo pasa uda. You are the best. Nekane.



Tel: 943 74 10 11

- 📍 IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ.
- 📍 ZIKLOMOTORREKO LIZENTZIA ASTEBETEAN. **AZTERKETARIK GABE!**
- 📍 IZENA EMATEAN %10EKO BEHERAPENA

Gaindi ezazu motorraren teorikoa 16 urte bete aurretik eta autoaren azterketa teorikoa 18 urte bete aurretik!

Zatoz informazio eske!



[OKINDEGIA]



24 igandea BOLINTXO



[FARMAZIAK]

- GUARDIA** 24 ORDUZ
- 22 Yudego
 - 23 Zabaleta
(* Goizez Etxeberria Santa Ana)
 - 24 Zabaleta
 - 25 Etxeberria (Errosario)
 - 26 Ibañez
 - 27 Bidasolo
 - 28 Etxeberria (Santa Ana)
 - 29 Ibañez

* Beti dago guardiako farmazia Eibar/Emua zonaldean.

KANPOKO FARMAZIAK
IBAÑEZ
Rekalde, 1 Soraluze.
Tel: 943 75 16 38

FERNANDEZ
Herriko enparantza 4, Garagarza.
Tel: 943 75 61 42

ZABALETA
Kalebarren, 9 Soraluze.
Tel: 943 75 13 84



Aitor Larrea "Larra"

1997ko ekainaren 23an hil zen
27 urte zituela

X. URTEURRENA

*Lagunartean estimatua
izan zaitugu, Aitor
gure artean betiko biziko zara
alai eta jator*

Koadrillakoak



Aitor Larrea "Larra"

1997ko ekainaren 23an hil zen
27 urte zituela

X. URTEURRENA

*Zure tronboiaren soinua
beti entzungo da Mauxitxan*

Mauxitxa Txaranga

[22 BARIXAKUA]

17:30 KIRIBILKA EGITASMOA

"Artista bat naiz ni"

Korri eta Xalto pailazoak
Plaza Handian (euria bada,
Herriko Antzokian)

Antolatzailea: Elgoibarko Izarra

18:00 AZKARRENA FESTA IMH-N

Merienda, sari banaketa eta Kike
eritmo afrikarren ikuskizuna
19:30ean, kontzertuak Guass
dantzalekuan. Taldeak: "Darling
Shoes"; "Garrapata" eta "Kike"

19:00 MARGO ERAKUSKETAREN INAUGURAZIOA

Jose Ramon Elorza
elgoibartarraren margoak
Kultur Etxean
Uztailaren 8ra arte (19:00 - 21:00)

22:00 BIDEO FORUM-A

Filmea: "La joven de las especias"
Kultur Etxeko Hitzaldi gelan
Hizlaria: Eskame Larinaga
Antolatzailea: Haizea Emakume T.

[23 ZAPATUA]

10:00 SAN LORENTZO ERREKAREN GARBIKETA

Ondoren bazkaria
Antolatzailea: Gazte Asanblada

11:00 TENIS TXAPELKETA

Basarteko tenis pistan eta
kiroldegian.

Antolatzailea: Basarte Elkartea.

11:00 LAGUNAK PILOTA TXAPELKETAKO FINALAK

Plaza Handian (euria bada,
Ikastolako frontoian).

Antolatzaileak: Udal Kirol Patronatua
eta Lagunak pilota taldea.

15:00 GAZTE JAIA

"Euskal Herria" jolasa, Skate
ikuskizuna eta ikastaroa
Plaza Handian eta Meka atzeko
kantsan

16:00 BILBOKO MANIFARAKO AUTOBUSA

EAE-ANVn prozesu
demokratikoaren alde antolatuta
Plaza Handitik

22:15 SAN JUAN BEZPERA

Dantza saio berezia suaren inguruan
Plaza Handian (euria bada, bertan
behera geratuko da)
Antolatzailea: Haritz EDT soinu-joleen
laguntzarekin

[28 EGUENA]

19:00 SAN PEDRO AUZOKO JAIEN HASIERA

Kanpai jotzea eta txapligu jaurtiketa.
21:00etan auzotarren afaria.

[29 BARIXAKUA]

11:00 SAN PEDRO EGUNEKO MEZA NAGUSIA

Ondoren luntxa.

14:30 AUZOTARREN ETA JUBILATUEN BAZKARIA SAN PEDRON.

San Pedroko jaien baitan.

19:00 ELGOIBAR BH INSTITUTUKO DIPLOMA BANAKETA

Herriko Antzokian

21:00 BERTSO AFARIA

San Pedron, Sebastian Lizaso eta
Ametz Arzallus bertsolariekin.

22:15 ANTZERKIA

Antzezlanak: "Meando fuera del tiesto"
Taldea: Kunka antzerki taldea
Sarrerak: egunean bertan salduko
dira leihatilan

ZINE KARTELDEGIA

ELGOIBAR HERRIKO ANTZOKIAN



«La Maldicion de La Flor Dorada»

22, barixakua: 22:15
23, zapatua: 19:30-22:15
24, domekia: 19:30-22:15
25, astelehena: 21:30



«Spiderman III»

29, barixakua: 22:30 (Plazan)
«Cerdos Salvajes»
30, zapatua: 22:30 (Plazan)

BARREnek ez du gerta litezkeen
emanaldien aldaketen erantzukizunik.

S I N O P S I A K

«La maldicion de la flor dorada»



Zuzendaria: Zhang Yimou.

Antzezleak: Jay Chou, Chow Yun-Fat, Gong Li.

Txina, X. Mendea. Tang dinastiaren ondarrak. Chong Yang jaialdiaren bezperan lorez beteta dago Jauregi Inperiala. Enperadorea ezustean itzuli da bere bigarren semearekin, Jai printzearekin. Enperadorearen emaztea gaixo dago eta bien arteko erlazioa ere aspaldi hautsi zen, printze oinordekoa den Wan, bere semeordearekin, maiteminduta baitago emaztea. Bien bitartean, Wan-ek bere izkutuko amorantearekin, medikuaren alabarekin, urrun ihes egitea amesten du, jauregiko giroa itogarria baitaio.

Atzera hegira



1990. urteko erretratu zahar hau **Itziar Beristainek** laga digu. Debako Maz-zantini tabeman aterata dago. Egun honetan Ricardo Mujikaren urtebe-tetzea ospatu zuten argazkian ageri diren lagun hauek. Gizon hauek oso lagunak ziren eta bazeukaten elkarrekin ospakizunak egiteko ohitura. Gogora ditzagun zein di-ren erretratuan azaltzen direnak.

Ezkerretik eskumara: **Musa, Jose Arriola "Pitxirri" (†), Ricardo Mujika, Imanol Garcia eta Sebas Suarez.**



ESKERTZA

2007ko ekainaren 19an hil zen
Ikene Zabala Aranberriren sendiak,
bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ESKERTZA

2007ko ekainaren 18an hil zen
Pakita Esnaola Arakistainen sendiak,
bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Alzolako Urak, bezero eta bizilagunei
San Juan jai zoriontsuak opa dizkizue.

Jai zoriontsuak

www.Alzola.com



M4A

Emakume,
gizon eta
haur erropak

Eskaintza bereziak

Julio Urkijo, 24 · AZKOITIA · Tel.: 943 85 07 36



uda'07

AIRE LIBREKO ZINEA

Elgoibar / 22:30 Foruen plaza

| | | | | | | |
|---|---|--|--|--|---|---|
| <p>ERAZKIN 29 OSTIRALA SPIDERMAN 2</p>  <p>130' / +12 urte</p> | <p>ERAZKIN 26 LARUNBATA CERDOS SALVAJES</p>  <p>88' / +12 urte</p> | <p>UZTAILAK 6 OSTIRALA THE PROOF</p>  <p>110' / +12 urte</p> | <p>UZTAILAK 7 LARUNBATA LAS INDICIONES DE MI SEÑOR</p>  <p>90' / +12 urte</p> | <p>UZTAILAK 10 OSTIRALA EL MONJO DEL NI RINOKI</p>  <p>87' / +12 urte</p> | <p>UZTAILAK 14 LARUNBATA AZI B ETX ADARAK BILHARRAK</p>  <p>88' / +12 urte</p> | <p>UZTAILAK 20 ASTERENA SUNSHINE</p>  <p>100' / +12 urte</p> |
| <p>UZTAILAK 24 ASTERENA LA CASA ROJAK</p>  <p>110' / +12 urte</p> | <p>UZTAILAK 27 OSTIRALA KOLAZKAR TXI</p>  <p>88' / +12 urte</p> | <p>UZTAILAK 28 LARUNBATA PELOJAKA BIKER SLASH KANE</p>  <p>90' / +12 urte</p> | <p>UZTAILAK 29 IGANDEA APOCALIPTO</p>  <p>130' / +18 urte</p> | <p>UZTAILAK 30 ASTERENA LA TELANARA DE CARLOTA</p>  <p>87' / +12 urte</p> | <p>ABUZTILAK 3 OSTIRALA DOK</p>  <p>110' / +18 urte</p> | <p>ABUZTILAK 4 LARUNBATA BORAT</p>  <p>88' / +18 urte</p> |



Elgoiberko Uda Kulturako Sarea